


OÑATIKO EH BILDU UDAL TALDEAK Fagor Etxetresnen eta Edesaren itxieragatik kaltetutako taldeen izenean ondorengo mozioa aurkezten du.

Fagor Etxetresnen gainbeherak, porrotak eta ondorengo hartzekodunen konkurtsoak oso ondorio txarrak ekarri ditu Debagoiena osoarentzat, Aramaiorentzat, Basaurirentzat eta Eggera honetako kristal zatiak konpontzea danon lana da, eta lan horrek kontzientzia hartzea eta horren arabera jokatzeko eskatzen du.



Ordezkatzen duten gizarteari hurbiltzen eta bere arazoak konpontzen saiatu behar dira erakunde publikoak. Udalak, gertueneko erakundeak diren heinean, sentikor izan behar dira euren herrietan izan daitekeen lanpostuen galeraren aurrean, nolabait behartutako erretiro lotsagarrien aurrean, kooperatibaren esku jarri ondoren, iruzur eginez, jabeei itzuli ez zaizkien aurrezkiak eta bete gabeko lanpostu-lagapenak.

Hortik aurrera: Fagor Etxetresnetako langile eta Fagor Etxetresnen gaian ardura duten instituzio guztien artean (Eusko Jaurlaritza, MCC eta CATA) bitartekari lana egiten ari garela eta egiten jarraituko dugula adierazten dugu. Ataka zail honetatik irteteko, instituzio guztiok gure onena jarri behar dugulako eta elkarlana delako bidea.

Horregatik guztiagatik, Fagor Etxetresnen eta Edesaren itxieragatik kaltetutako taldeek ondorengo puntuak onartzeko eskatzen dizkio Oñatiko Udaltzari:

- Oñatiko Udalak Mondragon Korporazioari honako hau eskatzen dio:
  - ✓ Lanpostua galdu duten pertsona guztiei behin betiko beste lanpostu bat eskaintzea. Ezgaitasun bat izateagatik, Gizarte Segurantzaren sartuta egoteagatik (Edesa), lana eta familia bateratzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik eman daitekeen lan-bazterketak ekiditea.
  - ✓ Behar beste neurri hartzea, negoziazio zuzenaren ondoren, bazkide eta bazkide ohiei hainbat modalitate bidez kooperatibaren esku jarri zituzten aurrezkiak (borondatezko ekarpenak, maileguak eta kooperatibaren baja eman ondoren itzuli gabe geratu ziren ekarpenak) itzultzeko.
  - ✓ Kooperatibisten aurre-erretiroak duin eta beste kooperatibetakoekiko baliokideak izatea.
  - ✓ Lanpostuak lagatzeari buruz adostutakoa betetzea. Erretiroa hartutako bazkidearekin hitzartutakoa betetzea, eta eskubide hori gauzatu ahal izateko ekarpena lagatzea. Lanpostuak lagatzeko araua hitzez hitz bete beharko da.
- Bere leihoak ireki eta arazo guztiak konpontzeko kaltetu guztiarekin elkarriketa bidetik abiatu dadila eskatzea Mondragon Korporazioari. Elkarriketa bidea gauzatu ahal izan dadin behar besteko bitartekari lanak egitea Udalak.
- Udal honek, bere esku dauden baliabide guztiak erabiltzea eskatzen die gainontzeko instituzioei: lehenik eta behin arloan kompetentziak dituzten Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuari, eta bide batez, Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- Erakunde publiko eta pribatuekin egindako gestioen eta lortutako emaitzen berri lehenbailehen guri ematea.
- Hartutako erabakia Mondragon Korporazioari, CATARI, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea. Era berean, mozio honen berri emango zaie herritarrei ohiko komunikabideetatik.

Oñati, 2014ko martxoak 24